


escultoras {} eskultoreak

Euskal
Emakume
Eskultoreak




AQUÍ AHORA

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

HEMEN ORAIN



ÍNDICE



INDIZEA

Prólogo María Jose Aranzasti, comisaria e historiadora del arte vasco. Hitzaurrea: Maria Jose Aranzasti, euskal artearen historialaria eta komisarioa.	PAG 02
--	-----------

Presentación/ Aurkezpena	PAG 08
--------------------------	-----------

Lourdes Méndez: Extracto/Pasartea: "Antropología del campo artístico, del arte primitivo al contemporáneo".	PAG 09
---	-----------

Escultoras/ Eskultoreak	PAG 11
-------------------------	-----------

EIDER BAILE	PAG 12
ANABEL BARBERENA	PAG 16
MAITE BARRAINKUA	PAG 20
SUSAN BART	PAG 24
VIRGINIA BOSCH	PAG 28
BÁRBARA CAMHI	PAG 32
MAITE CANTO	PAG 36
AMAIA CONDE CHIRALT	PAG 40
HELENA ELBUSTO	PAG 44
IDOIA ELOSEGI URTEAGA	PAG 48
IDOIA GRIJALBO	PAG 52
MARI JOSE LACADENA	PAG 56
AMPARO LOZANO SANCHA	PAG 60
ARANTZA MUNTA IRISARRI	PAG 64
OLATZ PEREDA BADOS	PAG 68
NERY ADRIANA PRADENAS	PAG 72
AMAIA SAÉNZ DE MAGAROLA	PAG 76
ELENA SCARATTI	PAG 80
ELENA SOLATXI	PAG 84

Exposiciones previas Aurreko erakusketak	PAG 88
---	-----------

Agradecimientos Eskerrak	PAG 96
-----------------------------	-----------

LA ASOCIACIÓN E3 EUSKAL, EMAKUME ESKULTOREAK ELKARTEA, EN BÚSQUEDA DE RENOVADORAS NARRATIVAS

Prólogo María Jose Aranzasti, comisaria e historiadora del arte vasco.

Desde los albores de la civilización humana, la escultura ha formado parte de la cultura creativa del ser humano, constituyéndose como un lenguaje poderoso relacionado con lo sagrado y lo simbólico. Esas referencias visuales surgieron desde tiempos remotos del imaginario colectivo. En la prehistoria, exactamente en el Neolítico, los menhires, dólmenes y crómlechs desplegados como un gran manto en los espacios abiertos, primero en el continente europeo y luego en otros, se convirtieron a lo largo de los siglos con sus formas pétreas contundentes, verticales, circulares y perdurables en esculturas de carácter público y comunitario, con derivas claramente de trascendencia insertas en el ámbito de la naturaleza.

Los obeliscos en el Antiguo Egipto reforzaron esa dimensión simbólica de perdurar en la eternidad, marcando una iconografía jerárquica en representación del poder político y religioso, estableciendo estrategias de obediencia y de orden. Este modelo se prolongará en la escultura griega y romana clásicas donde el cuerpo humano se convertirá en el eje central de la representación siempre desde una perspectiva patriarcal y normativa. La escultura pública se convirtió en instrumento de propaganda, glorificando al héroe en retratos, estatuas ecuestres y monumentos conmemorativos. De la espiritualidad religiosa y marcado simbolismo de la Edad Media, el Renacimiento entrará de lleno en la escultura con la observación de la naturaleza y del ser humano, reafirmando al artista como creador, centrándose en la belleza y en la razón.

Este legado histórico junto con otros posteriores como las propuestas vanguardistas de principios del s.XX, con las tendencias cubistas, expresionistas, abstraccionistas, futuristas, u orgánicas, resultará fundamental para comprender las prácticas escultóricas modernas y contemporáneas que van a cuestionar esos valores heredados: la monumentalidad, la permanencia, la centralidad del objeto y su función como emblema de poder. Frente a esta tradición, muchas propuestas artísticas actuales van a optar por la fragilidad, lo procesual y lo conceptual, replanteando el lugar de la escultura en relación con la sociedad, la política, la naturaleza, el feminismo y la crítica.

Resaltaremos algunas escultoras a modo de pinceladas en esta pequeña presentación. En la temática de lo procesual y de lo conceptual podríamos señalar la gran trayectoria artística de Elena Asins (Madrid, 1940- Azpiroz, 2015), sus series de *Menhires*, *Dólmenes* y *Canons* 22 que encierran sus características más potentes: su trabajo en seriación, construyendo el espacio y ordenando el tiempo, donde lo importante es la Idea. Antagónica a este estilo señalaremos a Cristina Iglesias (Donostia, 1956) en la que sus obras establecen un diálogo con la naturaleza, lo orgánico, las formas vivas y marinas con el agua fluyendo convirtiendo la artista a la escultura en una experiencia sensorial y ambiental como en Hondalea.

Muy reseñable es también la larga e influyente trayectoria de Esther Ferrer (Donostia, 1937) donde la performance se utiliza como forma de pensamiento y acción directa, el arte como un espacio de crítica social y de transformación cultural dentro de un feminismo activista, utilizando la artista su propio cuerpo como herramienta para cuestionar el patriarcado, la cosificación de la mujer y la realización de obras visuales complejas en las que interviene el azar con las combinaciones de sistemas racionales, de mediciones, de reglas matemáticas, como en sus series *Números primos* que ya aparecen desde los años 70, estructuras conceptuales, estructurales y poéticas.

Es difícil sintetizar en esta reseña las derivas y propuestas escultóricas de las escultoras vascas contemporáneas. Pero podemos señalar a algunas de ellas y como nexo de partida están los estudios universitarios de todas ellas en la Facultad de Bellas Artes de Bilbao porque son artistas formadas a partir de 1985 donde la escultura se ve inmersa en un territorio híbrido, de creación transversal donde dialoga con la pintura, la performance, el video, la instalación y la poesía disolviendo los límites entre las disciplinas y donde se va perfilando todo en un work in progress, en una obra en desarrollo, en proceso creativo experimental y en transformación.

A partir de la década de los 90 empezó a emerger un grupo de artistas vascas, enfrentándose a las estructuras de poder y tradición patriarcales, rompiendo las influencias de artistas como Oteiza y Chillida. Podríamos señalar el caso de Ana Laura Alaéz (Bilbao, 1964) como renovadora temática del arte vasco a través de instalaciones, esculturas, performance y video, que ahonda desde una perspectiva crítica la identidad de género, lo que significa habitar un cuerpo, la sexualidad y la feminidad, incorporando la cultura popular, las subculturas y lo kitsch en una estética híbrida. Su arte siempre plantea preguntas sobre la visibilidad, la identidad, la vulnerabilidad, a la vez que la artista se sumerge en lo político y lo autobiográfico siempre utilizando la crítica y la ironía.

Elena Mendizabal (Donostia, 1960) con una sólida y larga trayectoria artística parte del arte conceptual, del constructivismo oteiziano, creando un lenguaje propio alejado de las formas de la escultura tradicional para explayarse en la infinita versatilidad de materiales, colores y texturas, dialogar entre las transformaciones de la materia, reflexionar entre la forma y el espacio y sorprender en cada una de sus exposiciones como en *Ley propia* en las Salas Menchu Gal de Irun en 2024, creando unas narrativas a través de audio en las que la artista vierte sus propios pensamientos sobre múltiples cuestiones, valores del arte, etc.

Maria Cueto (Avilés, 1960) construye en *Tejer lo efímero* paisajes a través de pequeños fragmentos, de tramas y entramados vegetales de todo tipo de semillas y hojas, trenzadas y anudadas que dibujan en el aire grafías en suspensión. La artista teje sus *Moradas en el aire* y todas sus esculturas, tan musicales, mecidas por el viento reclaman un silencio reparador. Todas sus piezas, tan sutiles y poéticas son un canto a la belleza de la naturaleza, a la paz y a la reflexión.

Hay que reseñar a la interesante escultora Agustina Otero (León, 1960) radicada en Ituren, siempre interesada en su trayectoria artística por el espacio y últimamente centrada en el estudio formal y estructural de la cabeza humana como temática recurrente a lo largo de más de 20 años jugando en todos los sentidos: lleno/vacío, línea/círculo, cóncavo/convexo, con todas las posibilidades y materiales...

A Dora Salazar (Alsasua, 1963) siempre le ha interesado la temática y el universo del cuerpo femenino, las esculturas de figuras femeninas realizadas en hilo de cobre, en cuerda, arcilla y tela metálica con claros posicionamientos feministas y con propuestas de una nueva visión del cuerpo como espacio de autonomía. Ha realizado desde 1980 su obra escultórica pública en torno a la representación del rol de la mujer, buscando su identidad, cuestionando diferentes problemáticas en torno al género, apostando por la igualdad, la resistencia y como en *Las Sirgueras de la Ría de Bilbao*, poniendo en valor la labor colectiva de las mujeres, tradicionalmente invisibilizadas.

La crítica también está presente en la artista Bene Bergado (Salamanca, 1963) que con una larga trayectoria artística se ha centrado recientemente en apoyar un mundo más ecológico y sostenible, como en su exposición “Decrecer” (2023) en Azkuna Zentroa. Frente al derroche masivo al que asistimos en nuestro planeta y agotados los recursos naturales la artista propone decrecer, desacelerar y vivir mejor con menos.

Gema Intxausti (Gernika-Lumo, 1966) es también una figura clave en la renovación de la escultura vasca, sus obras conservan siempre un carácter narrativo. A partir de los 90 sus

piezas asociadas al ámbito de lo doméstico como los objetos cotidianos se desplazan hacia lo conceptual, a la crítica, con mucho énfasis al propio proceso y a la crítica. La artista combina instalación, texto, dibujo, fotografía, cine, y archivo en sus obras.

Pero también hay que subrayar una importante ruptura con los materiales. A la piedra, utilizada junto al hueso, marfil, bronce, madera, barro o arcilla desde los inicios de la civilización humana las artistas vascas han incorporado también el empleo de hormigón, acero, plástico, yeso, goma espuma, materiales industriales, acrílicos y resinas epoxi como las que utiliza June Crespo (Pamplona, 1982), una de las escultoras destacadas de la escultura vasca contemporánea que explora desde el ensamblaje y descontextualización de objetos para crear nuevas formas utilizando una mezcla de materiales en diálogo de transformación con la herencia de las crisis del mundo industrial incorporando conciencia ecológica y feminista en sus trabajos más recientes.

Son importantes de reseñar las nuevas generaciones de artistas junto con otras, de las que hablaremos más detalladamente en una próxima ocasión, por encontrar otros lenguajes y formas de reinterpretar la historia del arte y dismantlar la visión tradicional patriarcal del arte que han reemplazado a las narrativas dominantes. Estas nuevas generaciones de artistas como la artista multimedia Itziar Barrio (Bilbao, 1976) y Sahatsa Jauregi (Itaparica, 1984), renovadora de la tradición y cultura popular pueden ser algunos ejemplos, junto a Nora Aurrekoetxea (Bilbao, 1989) que parte de la materialidad de los objetos a la creación de unos nuevos, o como Elena Aitzkoa (Apodaka, 1984) que entrelaza escultura, poesía y performance, entre otras muchas artistas.

A través de las exposiciones la investigadora Maite Luengo Aguirre analizaba cómo estas habían sido claves para reinterpretar la historia del arte, enfocándose la representación del cuerpo y visibilizar a las artistas mujeres. Creemos que a través de las exposiciones el espectador puede comprender y comprobar las nuevas derivas que se presentan, no hay que olvidar que debemos hacer exposiciones individuales, así quedó patente en la conferencia por parte de Plataforma A en la 7ª edición de Perspectivas Feministas en las producciones artísticas y las teorías del arte realizadas en el Azkuna Zentroa en 2018. Es importante realizar exposiciones individuales que cuenten con un presupuesto adecuado y la edición del catálogo correspondiente.

La Asociación E3 Euskal Emakume Eskultoreak Elkarte y la casi veintena de escultoras integrantes, en búsqueda de renovadoras narrativas deben explorar la lectura crítica del arte actual como espacio de resistencia, reflexión y transformación social. Muchos territorios inexplorados aguardan para cuestionar los discursos normativos e imperantes, para poder visibilizar otras subjetividades y narrativas hasta ahora silenciadas y marginalizadas.

Las artistas de Asociación E3 Euskal Emakume Eskultoreak Elkarte a través de sus diferentes narrativas y temáticas podrán utilizar la crítica y la reflexión como herramientas imprescindibles para comprender este complejo mundo en el que nos ha tocado vivir y utilizar el arte como un medio de conocimiento con el vínculo imprescindible del feminismo. Deberán afrontar también los retos que ya acechan en el uso de la Inteligencia artificial (IA) y abordarlo desde la perspectiva de la oportunidad, como herramienta válida y no como sustituto en el proceso escultórico para generar ideas, prototipos, bocetos, siendo siempre imprescindible la sensibilidad, la intención, el objetivo y la importancia de la autoría como base fundamental de los códigos de las buenas prácticas y de la ética.

La Asociación E3 Euskal Emakume Eskultoreak Elkarte puede ser una base fundamental para crear redes de apoyo, compartir experiencias artísticas y fomentar diálogos en donde la IA pueda abrir nuevos horizontes y procesos siempre complementarios defendiendo la dimensión humana y la autoría individual. Tanto en el terreno del arte como en la escultura queda todavía muchos recorridos por realizar y muchos desafíos a superar. Todas las artistas que componen la Asociación E3 Euskal Emakume Eskultoreak Elkarte tienen mucho que aportar: imaginarios y discursos renovados, nuevas formas y narrativas que redefinan la historia del arte como creadoras, pensadoras y protagonistas.

E3 EUSKAL EMAKUME ESKULTOREAK ELKARTEA, NARRATIBA BERRITZAILEEN BILA

Hitzaurrea: Maria Jose Aranzasti, euskal artearen historialaria eta komisarioa.

Giza zibilizazioaren hastapenetatik, eskultura gizakiaren sormen-kulturaren parte izan da, eta sakratuarekin eta sinbolikoarekin lotutako hizkuntza boteretsu gisa eratu da. Erreferentzia bisual horiek imajinario kolektibotik eratu ziren antzinatik. Historiaurrean, Neolitoan zehazki, espazio irekietan mantu handi gisa zabaldutako menhirak, trikuharriak eta cromlechak, lehenik Europan eta ondoren beste leku batzuetara hedatu ziren. Mendeetan zehar, beren harrizko forma sendo, bertikal, zirkular eta iraunkorren bidez, izaera publikoko eta komunitarioko eskultura bihurtu ziren, naturaren esparruan txertatutako transzendentzia-joera argiekin.

Antzinako Egipton, obeliskoek betikotasunean irauteko dimentsio sinboliko hori indartu zuten, botere politiko eta erlijiosoaren adierazgarri zen ikonografia hierarkikoa markatuz, eta obediencia zein ordena ezartzeko estrategiak finkatuz. Eredu horrek Greziako eta Erromako eskultura klasikoetan izango du jarraipena, non giza gorputza izango baita irudikapenaren ardatz nagusia, betiere ikuspegi patriarkal eta normatibo batetik. Eskultura publikoa propaganda tresna bihurtu zen, erretratuetan, zaldizko estatuetan eta oroitzapenezko monumentuetan heroia goratuz. Erdi Aroko espiritualtasun erlijioso eta sinbolismo nabarmenetik abiatuta, Errenazimendua bete-betean sartuko da eskulturan. Natura eta gizakia behatuz, artista sortzaile gisa berretsiko da, eta edertasunean eta arrazoian jarriko du arreta.

Ondare historiko hori, ondorengo beste ekarpen batzuekin batera, hala nola XX. mendearen hasierako abangoardien proposamenak, joera kubistak, espresionistak, abstrakzionistak, futuristak edo organikoekin batera, funtsezkoa izango da eskultura moderno eta garaikideko praktikak ulertzeko. Izan ere, zalantzan jarriko dituzte oinordetzan jasotako balio horiek: monumentaltasuna, iraunkortasuna, objektuaren zentralitatea eta boterea adierazteko funtzioa.

Tradizio horren aurrean, gaur egungo proposamen artistiko askok hauskortasuna, prozesualtasuna eta alde kontzeptuala lehenetsiko dituzte, eskulturak gizartearekiko, politikarekiko, naturarekiko, feminismoarekiko eta kritikarekiko duen lekua birplanteatuz.

Aurkezpen txiki honetan, eskultore batzuk nabarmenduko ditugu zertzelada gisa. Prozesuari eta kontzeptuari dagokienez, Elena Asinsen (Madril, 1940 - Azpirotz, 2015) ibilbide artistiko handia aipa genezake, baita *Menhires*, *Dólmenes* eta *Canons 22 serieen* ezaugarri indartsuenak ere: seriatze-lana, espazioa eraikiz eta denbora ordenatuz, non garrantzitsuena ideia baita. Estilo honen bestaldean Cristina Iglesias (Donostia, 1956) aipatuko dugu. Bertan, bere lanek naturarekin, organikoarekin, eta ur-jarioan dauden forma biziak eta itsasokoekin elkarriketa bat ezartzen dute. Eskultura zentzumenen eta ingurumenaren esperientzia bihurtzen du artistak, Hondalea lanean bezala.

Aipagarria da, halaber, Esther Ferrerren (Donostia, 1937) ibilbide luze eta eragin handikoa, non performancea pentsamendu eta ekintza zuzenaren forma gisa erabiltzen den. Artea feminismo aktibistaren barruan kokatuz, kritika sozialerako eta eraldaketa kulturalerako gunea da, eta artistak bere gorputza patriarkatua eta emakumearen objektualizazioa zalantzan jartzeko erabiltzen du. Gainera, ikus-lan konplexuak egiten ditu, zeinetan zoriak parte hartzen duen sistema arrazionalen, neurketen eta arau matematikoen konbinazioekin. Horren adibide lirateke 70eko hamarkadatik jada agertzen diren *Números primos* izeneko bere serieak, egitura kontzeptual, estruktural eta poetikoekin.

Zaila da aipamen honetan euskal eskultore garaikideen proposamen eta deriba eskultorikoak laburbiltzea. Hala ere, horietako batzuk aipatzeko abiapuntu gisa, Bilboko Arte Ederren Fakultatean egindako unibertsitate-ikasketak hartu daitezke kontuan. Izan ere, 1985etik aurrera sortutako artistak dira hauek. Testuinguru horretan, eskultura lurralde hibrido batean kokatzen da, zeharkako sorkuntza-prozesu batean murgilduta. Horrela, diziplinen arteko mugak disolbatuz, pinturarekin, performancearekin, bideoarekin, instalazioarekin eta olerkiarekin batera, sormen-prozesu eraldatzaile baten barruan, etengabeko work in progress gisa garatzen da disziplina.

90eko hamarkadatik aurrera euskal emakume artista talde bat azaleratzen hasi zen, botere eta tradizio patriarkalen egiturei aurre eginez, Oteiza eta Chillida bezalako artisten eraginak hautsiz. Ana Laura Alaézen (Bilbo, 1964) kasua aipa genezake. Artista honek instalazioen, eskulturen, performancearen eta bideoaren bidez euskal artearen gaia berritu egin zuen. Genero identitatea, gorputzean bizitzearen esanahia, sexualitatea eta feminitatea bezalako gaietan sakontzen du ikuspegi kritiko batetik, eta, ikerketa horri herri kultura, azpikulturak eta kitsch estetika hibridoa txertatuz. Ikusgaitasunari, identitateari edo zaurgarritasunari buruzko galderak mahaigaineratzen ditu bere arteak. Aldi berean, artista politikaren eta autobiografiaren arloan murgiltzen da, betiere kritika eta ironia erabiliz.

Elena Mendizabal (Donostia, 1960), ibilbide artistiko sendo eta luzearekin, arte kontzeptualetik, hots, Oteizaren konstruktibismotik, abiatzen da eta eskultura tradizionalaren formatatik urrun dagoen lengoia propio bat sortzen du. Materialen, koloreen eta testuren aldakortasun infinituan jostatzen da, materiaren eraldaketen artean elkarriketan aritzeko, eta formaren eta espazioaren artean hausnartzeko. Erakusketa bakoitzean harritu egiten du, 2024an Irungo Menchu Gal Aretoan bezala, *Ley propia* erakusketarako audio bidezko narratiba batzuk sortu zituen, non artistak hainbat gai azaltzen zituen, artearen balio eta abarren inguruan.

Maria Cuetok (Avilés, 1960) *Tejer lo efímero* lanean, zati txikien bidez paisaiak eraikitzen ditu. Mota guztietako hazi, hosto eta landare zuntzak korapilatu eta txirikordatuz, airean grafia esekiak diruditenak irudikatzen ditu. Artistak bere *Moradas en el aire* lana ehuntzen du eta horretan, bere eskultura guztiek, hain musikalak direnak eta haizeak kulunkaturik, isiltasun sendatzailea eskatzen dute. Bere pieza guztiak, hain sotil eta poetikoak, naturaren edertasunari, bakeari eta gogoetari egindako laudorioak dira.

Nabarmentzekoa da ere Agustina Otero (Leon, 1960) eskultore interesgarria. Iturenen errotua, bere ibilbide artistikoan beti izan du espazioarekiko interesa, eta, azken aldian, giza buruaren azterketa formalean eta egiturazkoan jarri du arreta. 20 urte baino gehiago daramatza era guztietan jolasten, eta modu errepikakor gisa: betea/hutsa, lerroa/zirkulua, ahurra/ganbila, aukera eta material desberdinekin...

Dora Salazarri (Altsasu, 1963) beti interesatu izan zaio emakumearen gorputzaren gaia eta haren unibertsoa, kobrezko hariz, sokaz, buztinez eta oihal metalikoz egindako emakume irudien eskulturak, jarrera feminista argiekin eta gorputza autonomiarako espazio gisa ikusteko proposamenekin. 1980. urteaz geroztik, emakumearen rola irudikatzearen inguruan garatu du bere eskultura lan publikoa, bere nortasuna bilatuz eta generoaren inguruko problematika ezberdinak zalantzan jarriz. Berdintasunaren eta erresistentziaren inguruko lanketak eginez, Bilboko Itsasadarreko Zirgariak obran ikus dezakegun bezala, emakumeen lan kolektiboari balioa ematen dio, tradizionalki ikusezinak izan baitira.

Kritikak Bene Bergado artista ere jasotzen du (Salamanca, 1963). Ibilbide artistiko luzea duen sortzaile honek azkenaldian mundu ekologikoago eta jasangarriago baten aldeko apustua egin du. Azkuna Zentroan izan duen “Decrecer” (2023) erakusketan agertu duen bezala. Gure planetaren xahuketa masiboaren eta baliabide naturalen agortzearen aurrean, artistak gutxiago kontsumitu, erritmoa moteldu eta gutxiagorekin hobeto bizitzea proposatzen du.

Gema Intxausti (Gernika-Lumo, 1966) ere euskal eskulturaren berrikuntzan funtsezko figura da. Haren obrek beti izaera narratiboa gordetzen dute. 90eko hamarkadatik aurrera, etxeko esparruari lotutako piezak, esaterako, eguneroko objektuak, esparru kontzeptualerantz eta kritikaren eremurantz mugitzen dira, prozesuari berari eta ikuspegi kritikoari garrantzi handia emanez. Artistak instalazioa, testua, marrazkia, argazkigintza, zinema eta artxiboa uztartzen ditu bere lanetan.

Maite Luengo Aguirre ikertzaileak erakusketen bidez aztertu zuen erakusketa horiek artearen historia berrinterpretatzeko funtsezkoak izan zirela, gorputzaren irudikapenean arreta jarritz eta emakume artistak ezagutaraziz. Erakusketen bidez, ikusleak aurkezten diren deriba berriak ulertu eta egiaztatu ditzakeela uste dugu, eta ez da ahaztu behar banakako erakusketak egin behar ditugula, horrela azaldu zuen Plataforma A taldeak, 2018an Azkuna Zentroan egindako Ikuspegi Feministak ekoizpen artistikoetan eta artearen teorietan 7. edizioko hitzaldian. Aurrekontu egokia eta dagokion katalogoa argitaratuta duten banakako erakusketak egitea garrantzitsua da.

E3 Euskal Emakume Eskultoreak Elkartek, eta hura osatzen duten ia hogeiki eskultoreek, narratiba berritzaileen bila, egungo artearen irakurketa kritikoa aztertu behar dute, erresistentziarako, hausnarketarako eta eraldaketa sozialerako espazio gisa. Ikertu gabeko lurralde ugari dago oraindik diskurtso normatibo eta nagusiak zalantzan jarri ahal izateko, eta orain arte isilarazi eta baztertu diren bestelako subjektibitate eta narratibak ikusgarri egin ahal izateko.

E3 Euskal Emakume Eskultoreak Elkarteak artistek beren narratiba eta gai anitzen bidez, kritika eta hausnarketa erabili ahal izango dituzte bizitzea egokitu zaigun mundu konplexu hau ulertzeko ezinbesteko tresna gisa, eta artea ezagutzarako bitarteko gisa erabili, feminismoarekiko ezinbesteko loturarekin. Adimen artifizialaren (AA) erabileran dagoeneko agertzen ari diren erronkei ere aurre egin beharko diete, eta aukera gisa landu, tresna baliagarri modura ulertuta, baina inoiz ez eskultura-prozesuan ordeztu gisa: ideiak, prototipoak eta zirriborroak sortzeko. Betiere, ezinbestekoa izango da sentsibilitatea, asmoa, helburua eta egiletzaren garrantzia, jardunbide egokien eta etikaren kodeen funtsezko oinarri bezala.

E3 Euskal Emakume Eskultoreak Elkarteak oinarritzko euskarri izan daiteke babes sareak sortzeko, esperientzia artistikoak partekatzeko eta elkarriketak sustatzeko, non adimen artifizialak (AA) aukera eta prozesu berriak ireki ditzakeen, betiere elementu osagarri gisa ulertuta, giza-dimentsioa eta egiletzaren indibiduala defendatuz. Bai artearen esparruan, bai eskulturaren alorrean, oraindik ere bide asko egiteko daude, eta erronka ugari gaudizteke ere. E3 Euskal Emakume Eskultoreak Elkarteak osatzen duten artista guztiek ekarpen handia dute egiteko: iruditeria eta diskurtso berriak, forma eta narratiba berriak sortzaile, pentsalari eta protagonista bezala artearen historia berriro definitzeko.

PRESENTACIÓN


E3

Somos E3 Euskal Emakume Eskultoreak, un grupo de escultoras vascas que nos hemos unido desde la necesidad de que nuestro trabajo se visibilice en un entorno históricamente muy masculinizado.

Queremos darnos también la oportunidad de conocernos, de compartir nuestra visión de la escultura, del arte y de realizar proyectos comunes dentro de un colectivo abierto a todas las escultoras que quieran unirse.

Desde E3 nos hemos propuesto visibilizar nuestro trabajo como escultoras preparando exposiciones temáticas y de muestra de trabajo individual, creando proyectos colectivamente en diferentes formatos artísticos: performance, instalación, vídeo. En definitiva, dar a nuestras exposiciones una dirección didáctica buscando siempre implicar a colectivos, asociaciones, escuelas del lugar donde realizamos nuestras exposiciones, en un intento de contagiar nuestra pasión por la escultura.

Crear y empoderarnos colectivamente.



AURKEZPENA

E3

E3 Euskal Emakume Eskultoreak gara. Historikoki oso maskulinizatuta egon den gure esparru honetan, gure lana ikusarazteko beharretik elkartu den euskal emakume eskultore taldea gara.

Gure helburuak, besteak beste, elkar ezagutzeaz gain, eskulturari eta arteari buruz dugun ikuspegia partekatu, eta gurerak elkartu nahi duten eskultore guztiei irekia den kolektibo baten barruan proiektu komunak egiteko aukera zabaltzea da.

E3-tik emakume-eskultoreok egindako lanak ikusgai jarri nahi izan ditugu; horretarako, gaikako erakusketak zein bakarkako lanen mostarako prestatu eta hainbat formatu artistikotan (performancea, instalazioa, bideoa) proiektu kolektiboak gauzatu ditugu.

Gure erakusketei ikuspegi didaktikoa ematen diegu, betiere tokian tokiko kolektibo, elkarte eta eskolak inplikatzeko bilatuz, eskulturarekiko dugun pasioa kutsatzeko. Sortzeko eta elkarrekin ahalduntzeko ahaleginean.

LOURDES MÉNDEZ

(...) responder a por qué no hubo grandes artistas mujeres en la historia del arte era una trampa ya que la pregunta falseaba la naturaleza del problema que se intentaba resolver. Si se intentaba encontrar la respuesta a esa pregunta, se asumía la lógica de la mirada dominante sobre el arte y los artistas, lógica que se fundamentaba en creencias muy difundidas y legitimadas sobre el genio creador, el mito del gran artista y la concepción ultra-liberal del éxito individual. Hacerse esa pregunta conduciría, una vez más, a visiones meta-históricas del arte, de los artistas y de su trabajo creativo, e implicaría olvidar cuáles son los prerequisites institucionales y personales necesarios para obtener éxito en el campo artístico. Por eso lo que habría que preguntarse es cuál es la posición de los sujetos sexuados en el marco de unas relaciones sociales entre los sexos estructuradas por representaciones de la diferencia sexual que han permitido construir culturalmente a las mujeres como diferentes/inferiores con respecto a los hombres.

(...) En las sociedades de “tecnología simple”, tanto las formas de expresión artística como los materiales y las herramientas se repartían según el sexo. También con relación a los materiales se constataba generalmente una estricta división por sexos: los materiales duros —piedra, hierro, madera, hueso— servían de soporte a las obras realizadas por hombres, mientras que los blandos —cuero, fibras vegetales, arcilla, tejidos— eran materiales culturalmente atribuidos a las mujeres.

(...)

Para comprender por qué las artistas y otros sujetos históricos colectivos han sido (y son) minorizados en el campo artístico, hay que analizar cómo intervienen en él las ideologías sexuales, de clase y raciales dominantes. Las minorizadas, y los minorizados, son aquellos colectivos cuyos miembros son definidos como diferentes, como particulares frente a los miembros del grupo dominante que, ellos, encarnan la norma. Se trate de mujeres, de negros, de orientales, de lesbianas, de homosexuales, de obreros y obreras, de indios de las Primeras Naciones o de aborígenes australianos, esa definición limita sus posibilidades para desarrollar nuevas formas de conciencia, nuevas estrategias y prácticas tanto en el arte como en otros ámbitos de actividad. Y también actúa cuando dichos sujetos pretenden obtener reconocimiento artístico.

Como el campo artístico es uno de los más mistificados, suelen olvidarse dos hechos empíricamente verificables. El de que las artes son jerárquicas y funcionan mediante la autoridad de ciertos predecesores que dan la regla, mientras que los imitadores siguen simplemente esa autoridad, y el de que las diversas sociedades siguen confiando “el rol de dar la regla” al sexo masculino en todas las actividades.

Ambos hechos permitieron que destacados historiadores del arte como Gombrich elaborara síntesis del arte que abarcara desde la Prehistoria hasta mediados del siglo XX sin mencionar a ninguna artista (...) minorizando el papel creador que desempeñaron en los movimientos artísticos más innovadores del siglo pasado.

Lourdes Méndez “Antropología del campo artístico. Del arte primitivo al contemporáneo” Editorial Síntesis. Pág.108, 127 y 169.

LOURDES MÉNDEZ

(...) artearen historian emakumezko artista handirik zergatik ez zen izan erantzutea tranpa kontzeptual bat zen, galderak berak aztertu nahi zen arazoaren benetako izaera desitxuratzeko baitzuen. Galdera horri erantzuna aurkitzen saiatzean, arteari eta artistei buruzko begirada nagusiaren logika onartzen zen; logika hori oso hedatuta eta legitimatuta zeuden sinesmenetan oinarritzen zen, besteak beste sormen-jeinuaren ideian, artista handiaren mitoan eta arrakasta indibidualaren ikuspegi ultra-liberalean. Galdera hori egiteak, beste behin ere, artearen, artisten eta haien sormen-lanaren ikuspegi meta-historikoak eragingo lituzke, eta, aldi berean, eremu artistikoan arrakasta lortzeko beharrezkoak diren aurrebaldintza instituzionalak eta pertsonalak ahaztea ekarriko luke. Horregatik, galdetu beharrekoa litzateke zein den subjektu sexuatuaren posizioa sexu arteko gizarte-harremanen esparruan, harreman horiek sexu-desberdintasunaren irudikapenak egituratzen baitituzte, eta horiek kulturalki emakumeak gizonen aldean desberdin/behe mailakotzat erakitzea ahalbidetu baitute.

(...)

“Teknologia sinpleko” gizarteetan, adierazpen artistikoaren formak, materialak eta lanerako tresnak sexuaren araberako banaketaren mende zeuden. Materialen eremuan ere, oro har, sexuaren araberako bereizketa zorrotza egituratzen zen: material gogorrak —harria, burdina, egurra, hezurra— gizonek egindako sorkuntzen euskarri gisa legitimatzen ziren, eta material bigunak —larrua, landare-zuntzak, buztina, ehungaiak—, aldiz, emakumeei kulturalki esleitutako material gisa sailkatzen ziren.

(...)


Artistak eta bestelako subjektu historiko kolektiboak eremu artistikoan zergatik gutxiagotutakoak izan diren (eta diren) ulertzeko, bertan nagusi diren sexu-, klase- eta arraza-ideologien eragina aztertu behar da. Gutxiagotutako kolektiboak dira haien kideak desberdin eta partikular gisa izendatzen direnak, talde nagusiko kideek, aldiz, normaren ordezkari gisa funtzionatzen baitute. Emakumeak, pertsona beltzak, ekialdekoak, lesbianak, homosexualak, langileak, Lehenengoko Nazioetako indigenak edo Australiako aborigenak izan, definizio horrek kontzientzia-modu, estrategia eta praktika berriak garatzeko aukerak mugatu egiten ditu, bai artearen eremuan, bai jarduera-esparruetan oro har. Era berean, definizio horrek eragina du subjektu horiek aitortza artistikoa lortu nahi dutenean ere.

Eremu artistikoa mistifikatuenetako bat denez, enpirikoki egiazta daitezkeen bi gertaera ahaztu ohi dira. Izan ere, arteak hierarkikoak dira, eta araua ezartzen duten aurreko batzuk autoritatetzat hartuta funtzionatzen dute, imitatzailerek, berriz, autoritate horri soilik jarraitzen diote. Eta gizarteek, jarduera guztietan, gizonezkoari “araua ezartzeko rola” ematen jarraitzen dute.

Bi gertaera horiek direla eta, Gombrich bezalako artearen historialari garrantzitsuek, historiaurretik hasi eta XX. mendearen erdialdera bitarteko artearen sintesia egin zuten, emakumezko artista bat ere ez aipatu gabe (...), gisa horretan, aurreko mendeko mugimendu artistiko berritzaileenetan emakumeek izan zuten zeregin sortzailea txikiagotuz.

Lourdes Mendez “Antropología del campo artístico. Del arte primitivo al contemporáneo” Editorial Síntesis. 108, 127 eta 169 orr.

escultoras



eskultoreak

EIDER BAILE ZABALA



EIDER BAILE ZABALA

(Donostia / San Sebastián, 1990). Artista multidisciplinar centrada en la ilustración, la pintura y especialmente, en la cerámica.

Licenciada en Bellas Artes en 2014 y Máster en Cerámica: Arte y Función en 2017, ambos en la UPV/EHU.

Actualmente trabaja en su taller "La Madriguera", en Errenteria, donde crea obra propia e imparte talleres y cursos de cerámica. Su actividad docente y de mediación incluye colaboraciones con instituciones culturales (p. ej., talleres en Chillida Leku).

Su práctica combina ilustración, pintura y cerámica en formatos de escala contenida, poblados por seres imaginarios. Mediante una estética de la ternura y el cuidado, aborda temas duros o socialmente complejos, articulando modelado manual y acabados delicados.

Madre tierra
Cerámica, Gres chamota modelada
30x24x26 cm
2025

EIDER BAILE ZABALA

(Donostia, 1990). Ilustrazioan, pinturan eta, bereziki, zeramikan oinarritutako diziplina anitzeko artista.

Arte Ederretan lizentziatua 2014an, eta Masterra Zeramikan: Artea eta Funtzioa 2017an, biak UPV/EHU.

Gaur egun "La Madriguera" tailerrean lan egiten du Errenterian. Bertan bere lana sortu eta zeramikako tailerrak eta ikastaroak ematen ditu. Bere irakaskuntza eta bitartekaritza jarduerak, erakunde kulturekin lankidetzan aritzea ere barne hartzen dute (adibidez, tailerrak Chillida Lekun).

Bere praktikak ilustrazioa, pintura eta zeramika konbinatzen ditu eskala mugatua duten formatuetan, eta irudimenezko izakiz osatuak. Samurtasunaren eta zaintzaren estetikaren bidez, gai gogorrek edo sozialki konplexuei heltzen die, eskuzko modelaketa eta akabera delikatuak artikulatuz.

Ama lurra
Zeramika, Gres Chamota modelatua
30x24x26 cm
2025





EIDER BAILE ZABALA

ANABEL BARBERENA



ANABEL BARBERENA

(Pamplona, 1967). Escultora y artista, con raíces en la cerámica y una práctica que integra de manera creciente la madera.

De formación bastante autodidacta, recibe diferentes cursos en la escuela Bisbal de Girona, 1990. Va ampliando su experiencia en talleres de ceramistas como Arcadio Blasco, Claudi Casanovas y Manuel Keller.

Desarrolla una trayectoria vinculada al taller y a encargos que le han llevado a explorar materiales y procesos diversos. En la actualidad trabaja en su taller de Huarte - Pamplona, donde compagina la producción de su obra con la docencia y diferentes encargos, proyectos y colaboraciones con Eskuahaldunak, E3 Euskal Emakume Eskultoreak y ArteOn.

Su práctica se nutre del aprendizaje técnico de la cerámica - plasticidad, volumen, química, fuego y transformación. Del carácter vivo y versátil de la madera, su interés por la escultura de exteriores le ha hecho trabajar también con el cemento, aprovechando de cada material sus diferentes cualidades para la escultura.

Su obra busca la sencillez de un único movimiento: La espontaneidad de los primeros trazos y la precisión de los retoques finales. Con manos que entrelazan espacios y "mueven el vacío", establece un diálogo silencioso en el que un milímetro también importa. Trabaja desde procesos manuales y atentos al detalle, valorando el componente terapéutico del hacer, y explora piezas que emergen del contacto directo con los materiales, la economía de gestos y la construcción sensible del espacio.

Peonza

Madera de olmo, plateado y pan de oro
40x40x35 cm
2023

ANABEL BARBERENA

(Iruña, 1967). Eskultorea eta artista, zeramikan sustraiak dituena, eta zura gero eta gehiago integratzen duen praktika daramana.

Nahikoa prestakuntza autodidakta du; Gironako Bisbal eskolan, 1990ean, hainbat ikastaro egin zituen. Arcadio Blasco, Claudi Casanovas eta Manuel Keller bezalako zeramikarien tailerretan bere esperientzia zabaldu zuen.

Tailerrari eta enkarguei lotutako ibilbidea garatu du, eta, horren ondorioz, hainbat material eta prozesu esploratu ditu. Gaur egun, Uharte - Iruñeko bere tailerrean egiten du lan, eta, bertan, bere obraren produkzioa, irakaskuntza eta hainbat enkargu, proiektu eta lankidetzak uztartzen ditu Eskuahaldunak, E3 Euskal Emakume Eskultoreak eta ArteOnekin.

Bere praktika zeramikaren ikaskuntza teknikoaz elikatzen da: plastikotasuna, bolumena, kimika, sua eta eraldaketa. Zuraren izaera bizi eta moldakorretik, bere kanpo eskulturarekiko interesak, zementuarekin ere lan egitera bultzatu du, material bakoitzak eskulturararekiko dituen ezaugarri desberdinak probestuz.

Bere lanak mugimendu bakar baten sinpletasuna bilatzen du: lehen trazuen bat-batekotasuna eta azken ukituen zehaztasuna. Espazioak elkarlotzen dituzten eta "hutsunea mugitzen" duten eskuekin, elkarriketa isil bat ezartzen du, non milimetro batek ere axola duen. Eskuzko lanetatik, xehetasunei erreparatu, egitearen osagai terapeutikoa balioetsiz, materialak zuzenean ukitzetik, keinuen ekonomiatik eta espazioaren eraikuntza sentikorretik azaleratzen diren piezak esploratzen ditu.

Ziba

Zumar zura, zilarreztatua eta urrezko ogia
40x40x35 cm
2023





ANABEL BARBERENA



M A I T E BARRAINKUA

MAITE BARRAINKUA BURUAGA

(Atxondo, Bizkaia, 1983). Artista ceramista, diseñadora y formadora.

Se licenció en Bellas Artes; después se formó también en diseño y más tarde, completó un máster en Cerámica y Arte. Desde entonces, combina su trabajo artístico con la docencia en diseño y cerámica.

Ha participado en exposiciones individuales y colectivas en distintos espacios de Euskadi, como Bizkaia Aretoa (Bilbao), Aroztegi Aretoa (Bergara), Sanz Enea (Zarautz) o Batzar Nagusiak (Bilbao), entre otros. En 2022 recibió una beca de emprendimiento de la UPV/EHU para desarrollar piezas vinculadas a la imagen y la memoria.

Su trabajo ha sido reconocido recientemente con dos premios: En otoño de 2025 recibió el Premio Nacional CERCO Gres Aragón Faveker por la obra 80 personas olvidadas y IV. Premio Roberto Parga a la Pieza Única con la obra China girls en la Feria de Cerámica Creativa CERO de Oviedo. Además ha sido seleccionada para la XVII Bienal Internacional de Cerámica de Manises (2026).

En noviembre de 2025 desarrolló la residencia artística Maker Ekintzaile en el FabLab del espacio Open, en Bilbao, donde trabaja en la traslación de las memorias de mujeres bilbaínas en la industria del XIX y XX a piezas cerámicas. Son litofanías que se muestran como huellas que sobreviven en el límite de la desaparición, presentando las imágenes como documentos abiertos y relacionándolos con la luz y la memoria. Trabaja principalmente con porcelana, para hablar de lo frágil, lo resistente, lo que permanece y lo que se borra. Emplea técnicas como la colada, la retroiluminación o la impresión 3D de matrices a partir de fotografías antiguas, radiografías u otros documentos de archivo.

En su obra, la diapositiva se ha convertido en un objeto central; no solo como formato visual, sino como símbolo de archivo y de memoria. Temas como la genealogía, la ausencia o la memoria propia de las mujeres recorren sus proyectos, desde piezas únicas hasta instalaciones como China Girls, Ahaztuak, Mujer desconocida o Huellas genealógicas. En ellas, busca una tensión en estado de duda permanente entre lo que se guarda y lo que se desecha.

MAITE BARRAINKUA BURUAGA

(Atxondo, Bizkaia, 1983). Artista zeramista, diseinatzailea eta hezitzailea.

Arte Ederretan lizentziatu zen; Diseinuan trebatu zen, eta, ondoren, Zeramika eta Artean Masterra egin zuen. Ordutik hona, bere lan artistikoa, diseinua eta irakaskuntza uztartzen dihardu.

Banakako eta taldeko erakusketetan parte hartu du Euskadin: Bizkaia Aretoa (Bilbo), Aroztegi Aretoa (Bergara), Sanz Enean (Zarautz) edo Batzar Nagusietan (Bilbo) besteak beste. 2022an ekintzailatza beka bat jaso zuen UPV/EHU, irudiari eta memoriari lotutako piezak garatzeko. Bere lanak bi sari jaso ditu berriki: 2025eko udazkenean CERCO Gres Aragón Faveker Sari Nazionala jaso zuen, 80 ahaztu izeneko obragatik, eta, Trascorraleseko (Oviedo) CERO Zeramika Sortzailearen Azokan, IV. Roberto Parga saria Pieza Bakarrari, China girls obragatik. Gainera 2026ko, Maniseseko Zeramikaren Nazioarteko XVII. Bienalerako hautatua izan da.

2025eko azaroan, Maker Ekintzaile erresidencia artistikoa garatu zuen Bilbon aurkitzen den Open espazioko FabLabean. Bertan, XIX. eta XX. mendeko industrian lan egin zuten emakume bilbotarren memoria balioberritzen ibili da. Horretarako, Litofania formako piezak erabili ditu, desagertzearen mugan bizirauten duten azarnak erakutsiz, irudiak dokumentu ireki gisa aurkeztuz, eta irudi hauek argiarekin eta memoriarekin erlazionatuz.

Portzelana izan ohi da bere lanerako material nagusia. Hauskortasunaz, iraunkortasunaz eta ezabatzen denaz hitz egiteko baliagarritzat duelako. Hainbat teknika erabiltzen ditu: isurketa, atzetiko argiztapena edo 3D inprimaketa adibidez. Eta abiapuntu bezala, argazki zaharrak, erradiografiak edo bestelako artxibo dokumentuak erabiltzen ditu.

Bere obran, diapositiba adierazpenerako objektu nagusi bilakatu da, ez bakarrik formatu bisual bezala, baizik eta artxiboa eta memoria lantzeko baliabide poetiko gisa ere. Genealogia, absentzia edo emakumeen memoria propioa bezalako gaiak bere proiektuak zeharkatzen dituzte; China Girls, Ahaztuak, Emakume ezezaguna edo Lorratz genealogikoak bezalako lanetan, pieza bakarrak edo instalazioak proposatzen ditu. Hauetan, besteak beste, gordetzen denaren eta baztertzen denaren arteko etengabeko zalantza egoerak sortutako tentsioa bilatzen du.

80 ahaztu
Porcelana, Proyector Kodak Carrousel y
Cubo PLA con lona.
Porzelana, Kodak Carrousel proiektorea eta
lona duen PLA-zko Kutxa.
50 x 50 x 30 cm
2022

China girls
36 Litofanias de porcelana, Tablero de
madera y luces LED
Porzelanazko 36 litofania, zurezko taula eta
LED argiak
103 x 75 cm
2022



MAITE BARRAINKUA

S U S A N B A R T



SUSAN BART

(Bilbao, 1977). Artista multidisciplinar especializada en marquetería aplicada a la escultura; su obra transita del plano y el relieve al volumen y la instalación.

Es licenciada en Bellas Artes por la UPV/EHU (2001) y posee el Máster en Gestión de Diseño Industrial (2004) y el Máster en Cerámica: Arte y Función (2021). Es miembro de The Marquetry Society (Reino Unido) y de las asociaciones vascas Euskal Emakume Eskultoreak (E3) y Eskuahaldunak.

Desarrolla su actividad entre Bilbao y proyectos internacionales, con exposiciones individuales en Skylark Gallery (Londres, 2016), Sala Paco Rabal (Águilas, 2016), Clara Campoamor (Barakaldo, 2016), Bozzetto (Bilbao, 2020), Casa Torre (Santurtzi, 2021) u Hotel Reconquista (Oviedo, 2023). En 2025 participa en la muestra “Free Verse: Explorations in Contemporary Marquetry” (en la Messler Gallery, Rockport, Maine, EE. UU.).

Trabaja por series y temáticas: integra marquetería contemporánea en madera con cerámica y, más recientemente, plástico reciclado; su línea discursiva se centra en la ecología y la reutilización, combinando investigación material y divulgación del reciclaje. Ha impartido clases de marquetería y cerámica en programas municipales de Bilbao y en la actualidad desarrolla su labor docente en su propio taller.

www.SusanBart.com
@susanbart77

Laguntza.
Plástico reciclado
60x60x12
2025

“¿Quién debe proteger a quién?”

SUSAN BART

(Bilbo, 1977). Eskulturan aplikatutako marketerian espezializatutako diziplina anitzeko artista. Bere obra, planotik eta erliebetik, bolumenera eta instalaziora igaro da.

Arte Ederretan lizentziatua da UPV/EHU (2001), Diseinu Industrialaren Kudeaketako Masterra (2004), eta Zeramika eta Arteko Masterra: Artea eta Funtzioa (2021). The Marquetry Society-ko (Erresuma Batua), eta Euskal Emakume Eskultoreak (E3) eta Eskuahaldunak euskal elkarteetako kidea da.

Bilbo eta nazioarteko proiektuen artean garatu du bere jardura, bakarkako erakusketak Skylark Gallery-n (Londres, 2016), Paco Rabal aretoan (Águilas, 2016), Clara Campoamor-en (Barakaldo, 2016), Bozzetto-n (Bilbo, 2020), Casa Torre-n (Santurtzi, 2021) edo Hotel Reconquistan (Oviedo, 2023). 2025ean “Free Verse: Explorations in Contemporary Marquetry-n” (Messler Gallery-n, Rockport, Maine, AEB parte hartu du).

Serieka eta gaika lan egiten du: marketeria garaikidea zurez integratzen du zeramikarekin, eta berriki, plastiko birziklatuarekin. Bere diskurtsoaren ardatza ekologia eta berrerabilpena dira, ikerketa materiala eta birziklapenaren dibulgazioa konbinatuz. Marketeria eta zeramika klaseak eman ditu Bilboko udal programetan eta gaur egun bere tailerrean egiten du lan.

www.SusanBart.com
@susanbart77

Laguntza.
Plastiko birziklatua
60x60x12
2025

“Nork babestu behar du nor?”





SUSAN BART

VIRGINIA
BOSSCH

VIRGINIA BOSCH

(San Sebastián, 1964)

Construye su universo creativo desde el diálogo íntimo con la naturaleza y la convicción de que el arte es, ante todo, un acto de encuentro.

Su formación —iniciada en la Escuela de Enseñanzas Artesanales de Deba, continuada entre Burgos, Dinamarca, Hamburgo— es apenas comienzo de un aprendizaje verdadero: aquel que surge del contacto directo con la materia, del ensayo paciente, de la observación del entorno como maestra silenciosa. Artista autodidacta en el sentido más profundo: alguien que aprende escuchando al mundo.

Desde finales de los años 80 expone en el País Vasco, Navarra, Francia, pero su trayectoria trasciende las coordenadas del espacio expositivo convencional. Lo que comenzó como exploración cerámica se ha convertido en una práctica escultórica que abraza múltiples disciplinas y materiales, en la actualidad madera que recoge del bosque y las riberas de río cercano al entorno natural en el que vive. Ramas, troncos, cortezas: "los regalos del bosque" se transforman en sus manos en esculturas que no imponen su presencia, sino que la negocian con el territorio. Cada pieza es una conversación sobre el cuidado, sobre la pertenencia, sobre los vínculos invisibles que nos atan a la tierra. Su taller no es refugio sino laboratorio abierto, espacio donde lo aprendido se comparte y lo colectivo cobra forma. Entre el medio rural y contextos comunitarios, teje proyectos de co-creación con perspectiva de género, como su dirección artística de Leonardas de Andiavinci. Su práctica se despliega también en instalación, performance y pintura gestual —Namantis, Puenteando la igualdad— donde el gesto creativo se vuelve acción social, afecto materializado.

Integrada en diversos colectivos como E3 (Euskal Emakume Eskultoreak), es también impulsora del espacio creativo Casa Salinesena, y continúa procesando una forma de hacer arte que es también una forma de habitar el mundo: con las manos en la materia, los pies en la tierra, y el compromiso de crear juntas.

VIRGINIA BOSCH

(Donostia, 1964)

Bere sormen unibertsoa, naturarekiko elkarrizketa intimotik eta artea, batez ere, topaketa-ekintza delakoaren ustetik eraiki du.

Bere prestakuntza —Debako Artisautza Irakaskuntzen Eskolan hasi eta Burgos, Danimarka eta Hanburgon jarraitua—, benetako ikaskuntza baten hasiera baino ez da: materiarekiko zuzeneko kontaktutik, saiakuntza lasaietik, ingurunearen behaketatik sortzen dena. Artista autodidakta zentzurik sakonenean: munduari entzunez ikasten duena.

80ko hamarkadaren amaieratik Euskal Herrian, Nafarroan, Frantzia erakutsi izan du baina bere ibilbideak ohiko erakusketa espazioaren koordinatuak gainditu ditu. Hasieran zeramikaren esplorazio gisa hasi zena diziplina eta material anitz bereganatzen dituen praktika eskultoriko bilakatu da; gaur egun, bereziki, bizi den ingurune naturaletik hurbil dauden baso eta ibaiertzetatik jasotzen duen egurra erabiltzen du. Adarrak, enborrak, azalak: "basoko opariak" eskultura bihurtzen dira bere eskuetan, ez dute beren presentzia inposatzen, lurraldearekin negoziatzen dute. Pieza bakoitza, zaintzari, kidesunari, lurrari lotzen gaituzten lotura ikusezinei buruzko elkarrizketa bat da. Bere tailerra ez da aterpea, laborategi irekia baizik, ikasitakoa partekatu eta kolektiboak forma hartzen duen espazioa. Landa ingurunearen eta komunitate testuinguruen artean, genero ikuspegidun hezkuntza proiektuak sortu ditu, hala nola, Leonardas de Andiavinciren zuzendaritza artistikoa. Bere praktika, instalazioan, performacean eta keinu pinturan ere hedatu da, esate baterako, —Namantis, Berdintasuna borrokatuzen— non keinu sortzailea gizarte ekintza bihurtzen den, afektu gauzatua.

E3 (Euskal Emakume Eskultoreak) bezalako hainbat kolektibotan integratua, Salinesena Etxea sormen espazioan, bultzatzaile ere bada, eta artea egiteko modu bat prozesatzen jarraitzen du, baita munduan bizitzeko modu bat ere: eskuak material, oinak lurrean, eta elkarrekin sortzeko konpromisoa.



A la tierra/ Lurrera

Madera, metal, material vegetal y piedra/ Zura, metal, landare-jatorriko materiala eta harria
